

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Badator

Hiru prozesu ezberdinen inguruan hitz egin nahiko nuke gaurkoan. Normalean errespetatu beharreko karaktere kopurua labur geratzen bazait, gaurkoan hiru aldiz laburrago geratuko zait, baina ezin hirurak aipatu gabe utzi.

Hilabete honen 26an Kolonbiako Gobernuak eta FARC-ek berriki erdietsi duten bake akordioa sinatuko dute. Konfrontazio armatuari amaiera eman, eta joko arau berriak ezarriko dira. Gatazka politikoei diraute, aldeek haien ikuspegi eta helburu politikoak mantentzen dituzte, baina aurrerantzean eta adosturikoa betetzen bada, haien arteko talkak modu demokratiko eta baketsuan kudeatuko dituzte, eta norbere helburu politikoak baldin eta herritarren gehiengoaren babesa lortzen badute lortuko dituzte. M19k bake akordioak sinatu ondoren jaso zuen jazarpena eta bere militanteen erailketa masiboa ez dira aurrekari ona, baina orduan gertaturikoa ondo baino hobeto ezagutzen dute FARCEko militanteak eta pentsatzekoa da antzeko ezer ez errepikatzeko bermeak ezarriko direla. Era berean, Kolonbiak bizi duen agertoki berri eta itxaropentsuak ELNren eta Kolonbiako Gobernuaren arteko prozesua azkartu eta lagundu beharko luke.

Norabide berean, Filipinetako Gobernuak eta National Democratic Front (NDF) mugimendu politiko eta armatuak akordio garrantzitsua lortu berri dute. Norvegiak lagunduriko prozesuan, Os- lon egingo dira bi aldeek arteko elkarrizketa eta negozi- azioak. NDFk su etena hasi du eta Gobernuak militante batzuk askatu ditu negozi- azioetan parte hartu ahal izan dezaten. Hamarkadetak- on konfrontazio armatuari amaiera adostua emateko auke- ra paregabearen aurrean gaude.

Antzeko garaietan sortu eta hedatu ziren mugimendu armatu ezberdinak munduko txoko ugarian. Horietarik, babes sozial zabala lortu zutenak dira urteetan irautea lortu dutenak, eta horietako gehienak (guztiak ez bada), haien estrategia politiko armatua aldatu dute azken urteetan, beren helburuak lortzeko beste borroka molde batzuen aldeko apustua eginez. Ez daude bi prozesu ber- din munduan, eta ondorioz bakoitzak bere espezifikota- sun eta berezitasunak ditu, baina orokorrean hitz egin- da, nahiko nabaria da hori, Aceh, Hego Afrika, Erdialdeko Amerika, Irlanda, Birmania, Kolonbia, Filipinak... dira ho- rren adierazle nabarmenak. Kasu gehienetan ere gober-

nuen aldetik aldaketa nabarmena eman da, Kolonbian azken urteetan ikusi dugun bezala, eta konponbidearen aldeko apustu sendoa egin duten agintariak azaldu dira. Pena da Espainiako edo Frantziako agintariak Santosen adibidea jarraitu baino Erdogan eta Uriberen politikare- kin bat egiten dutela ikustea. Konponbideari bizkarra emanez gerrarako egin duten apustuak ez du etorkizu- nik. Haien jarreraren tematu gabe, guk gure bidea jarrai- tzean dago nire ustez gakoa, independentziaren alde prozesu sendoa martxan jarritz. Katalunia erakusten ari zaigun bezala.

Eta hori da gaurkoan aipatu nahi nuen hirugarren pro- zesua. Kataluniak Diada eguna ospatu berri du, eta, beste behin ere, aldarrikapen egunak bide orria zehaztu eta bo- rrokarako grina eta ilusioa mantentzeko balio izan diela uste dut. Azkenaldian bazirudien kataluniar prozesua mo- teltzen ari zela, ez zegoela aurrera egiteko bide argirik, Es- painiar gobernu berriak ekar zezakeenaren zain egon zi- tezkeela batzuk. Baina, nire ustez, aurtengo Diadak zeoz- erakutsi badigu, kontrakoa da; hau da, Kataluniak bere bi-

Prozesu katalanak behar dituen baldintzak herritarren gehiengoaren babesa eta nazioarteko onarpena dira. Adostutako erreferendumak bidea erraztuko luke, baina, nire ustez, jada ez da beharrezkoa

dea jarraitzen duela, pausuz pausu eta aurrera. Eta aurrera doan prozesu hori ez da nire ustez aldebakarrekoa, proze- suaren epizentroa Katalunian dagoelako, Kataluniatik Ka- taluniarentzat garatzen ari den prozesua da, eta hori, nola ez, alde askotariko prozesua da, alderdi, sindikatu, herritar mugimendu, norbanako askoren parte hartzearekin aurre- ra doana. Nazioartean kokatuta dago prozesu honen biga- rren hanka, Kataluniako Errepublika onartuko duten esta- tuak lortzeari begira. Azkenik, Espainiako Gobernuarekin erreferendum bat adosteko borondatea ere mantentzen du prozesuak, baina bedeinkapen hori itxaron gabe bere bidea marrazten jarraituz. Horregatik, prozesuak helmu- gara iristeko behar dituen beharrezko baldintzak lehen- biak dira, herritarren gehiengoaren babesa eta nazioarteko onarpena. Hirugarrenak bidea erraztuko luke, baina, nire ustez, dagoeneko ez da beharrezkoa. •